





Formación
y educación

Formakuntza
eta hezkuntza



Ikerketa tresnak

SAIHESBIDEAK ETA IREKIERAK

Praktika artistikoan oinarritutako ikerketa ariketak

Julen Agirre, Iranzu Antona, Naia del Castillo, Usoa Fullaondo, Rita Sixto

2019
Abenduak 26 >> 28

eman ta zabal zazu

Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL


laSIA


Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORAN



Laugarren urtez jarraian, Uharteko Arte Garaikide Zentroak ikerketa-jardunaldi hauek antolatu ditu, arte-ikerketa eta arteetan oinarritutako ikerketa zalantzan jarri, birplanteatu eta berrezartzeko, haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ulertuz, baina baita haien osagarritasuna ere.

NORI ZUZENDUAK DAUDE

Jardunaldi hauek doktoretzak egiten ari direnei, ikasleei, ikertzaileei, hezitzaileei, artistei eta ikerketa artistikoa interpelatzen duen edozein pertsonari zuzenduak daude.

Gehienez ere 20 partaide.

DATAK ETA ORDUTEGIAK

Abenduak 26, 16:00etatik, 19:00etara

Abenduak 27, 10:00etatik, 19:30etara

Abenduak 28, 10:00etatik, 14:30etara

IZEN EMATEAK

Izen emate kuota 20€. Iruñerriatik kanpo bizi diren pertsonentzat 50 euroko bidaia poltsa eskatzeko aukera dago. Jardunaldietan parte hartzeko abenduaren 15a baino lehen bete behar www.centrohuarte.es/eu webguneko formularioa

Jardunaldiak

2019

laSIA (EHU) Julen Agirre, Iranzu Antona, Naia del Castillo, Usoa Fullaondo, Rita Sixto

laSIA Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren fakultateko ikerketa talde bat da. Taldearen izena, 2016an abiatutako eta “El lugar del sujeto en la investigación artística basada en la práctica” izeneko proiektuan du jatorria. Izenburu horretatik hartu ziren SIA -Sujeto, Investigación, Arte-siglak eta gaztelerazko artikulu femeninoa gehitu zitzaion. Gaur egun arte egindako lanaren oinarritzko helburua, praktika artistikoaren dimentsio ikertzailea arakatzea da.

laSIAn artearen praktika jakintza esperientzia bat bezala ulertzen dugu, eta ikertzaile garen heinean, subjektu-artistaren lekuan kokatzen gara. Gogoeta praktikaren leku horretatik, jakintza teoriko bat deskribatzeaz baina, ikerketa artistikoaren sorkuntza eta erakusketarako bide berriak irekitzea ahalbidetuko duen esperimentazio praktiko bat trazatzen saiatzen gara.



Azkeneko bi hamarkadetan Europako testuinguruan garatu diren ikerketa artistikoaren eztabaidek, modu esanguratsuan ireki dituzte artea eta ikerketaren arteko balizko harreman estetikoak eta epistemikoak. Nahiz eta artea beti izan den jakintzaren gizartearen atal bat, artea ikerketa gisa hartzea jakintzaren baldintza bezala ezagutzen diren kultura aldaketen baitan dago. Artearen historian bira ikonikoa deitutakoari, eredu teorikoaren krisia eta zientziaren filosofiara gerturatzeko gehitzen zaio. Gainera, lehen gutxietsitako jakintza formak, esaterako, ez-diskurtsiboak, aitorpena jaso dute egun ikuspuntu antropozentrista baztertzearekin batera.

Testuinguru honen konplexutasuna ezagututa, Jardunaldi hauetan praktikatik lan egingo dugu egite artistikoaren tresnekin. Lan egiteko modu desberdinak erabiliko ditugu, irudietan, gorputzaren esperientzietan eta egoeren sorreran oinarritutako ariketa praktikoak eta testuak irakurtzetik eta ikusizko saiakuntzetatik eratorritako beste batzuk konbinatuz.

Proposatutako ariketen multzoarekin, ikerketa-protokoloak desegiten eta/edo berregiten saiatuko gara. Praktikatik abiatuta, ariketa bakoitzak hausnarketa indibiduala eta partekatua bultzatzeko elkarriketa bat sustatuko du. Dinamikak abiarazten, ekintza-baldintzak proposatzen eta eragiketak bultzatzen saiatuko gara elkarrekin; entrenamendu-saioak izango dira. Izan ere, kontua ez da praktikek produktuak sortzea, baizik eta ariketa bakoitzak subjektua bere lekutik mugitzea, ikuspuntua aldatzea, bere ibilbidearen jarraitutasuna zalantzan jartzea eta, azken batean, eraldaketa bat eragitea.

Beraz, jardunaldien helburua partaideen ikerketa-prozesuan saihebidetarako eta irekierak. Ariketak tresna egokiak izanen dira agian aurrerago lan ildoak errazago garatzeko.

Lantegiaren egitaraua

Galderen formulazioa oinarritzko dinamika izango da prozesuan zehar; Hans Peter Feldmannek egindako ikusmen-pentsamenduaren ariketan oinarritutako gara, Hans Ulrich Obrist-ek egindako elkarriketa batean, bere galdera bakoitzari erantzuteko, irudi bat ematen baitzion.

Lantegia formatu honekin abiatuko dugu, horretarako, partaide bakoitzak elkarriketa hartako galdera bat aukeratua izanen du aurretik –nolabait, egiten ari den ikerketari eragingo diona-zeinari, aurretik (modu pertsonalean) irudi batekin erantzuna emana izango duen. Horrela hasiko da lantegia, eta saio bakoitzean elkarriketa berraktibatzen ahaleginduko gara, jarrera galdegilea eta ikerketa prozesuaren dimentsio erreflexiboa sustatzeko asmoz.

ABENDUAK 26, 1. SAIOA

16:30-18:30 · Partaideen eta hizlarien aurkezpena

Hans Ulrich Obrist eta Hans Peter Feldmannen arteko elkarriketako galderen erantzun gisa hautatutako irudien bidez.



honetan bideo bat egin beharko da; partaide bakoitzak bere mugikorrarekin graba daitekeen ekintza bat pentsatu beharko du. Ondoren, beste parte-hartzaile batekin bikotea osatuko du. Bideoa egitean, bakoitzak bere lankidearekin negoziatu beharko du, bi ekintzen presentziari esker zentzu berri bat sortzeko, ez baita beste ekintza bat baztertuko edo haren mende egongo. Emaitzak ikusi ondoren, negoziatioetan ikusi diren interesen arteko aldeak eta akordio batera iristeko izan dituzten zailtasunak azalduko ditugu.

19:15-19:30 · Meditazio saioa

ABENDUAK 28, 4. SAIOA

10:00-11:00 · Meditazio saioa

Ariketa hau egin eta hiru saiotan egin den ariketa komunean jartzea.

11:00-13:00 · DIBUJACIÓN ariketa

Julen Agirre artistak irudiekin soilik lan egitea proposatzen du ariketa honetan. Ikerketa artistiko baten parte diren irudi horiek aurretik elkartuta egonen dira. Egin beharreko lana, binaka jarritako bi irudien artean lotura egiteko hirugarren irudi bat marraztea da. Harreman horiek intuiziotik egitea proposatzen da, prozesuan hitza, ahozkoa edo idatzizkoa erabili gabe. Ariketa bukatutakoan bakarrik hitz egin ahal izango da ariketari buruz.

13:00-13:30 · Atsedenaldia

13:30-14:30 · Interview-a berraktibatu eta ondorioak atera

Lantegia, Interview-a konpartitu eta osatu dugun tokian amaituko dugu, galdera eta erantzun, idazketa eta irudien mosaiko handi bat izango da. Egoki irizitako galderak eta edozeinek erantzun nahi izan dituen irudi guztiek osatutako artxiboa.

Atze-oihal horrekin hasiko gara, beharbada, ariketen multzoak eragindako aldaketak hautemateko garaia izango da.

Erreferentzia bibliografikoak

Bal, Mieke (2009), Conceptos viajeros en las humanidades. Una guía de viaje, Murcia: Cendeac.

Belting, H. (2007), Antropología de la imagen, Madrid: Katz

Braidotti, R. (2018), Por una política afirmativa, Barcelona, Gedisa

Braidotti, R. (2009), Transposiciones. Sobre la ética nómada, Barcelona, Gedisa

Català, Josep M. (2014), Estética del ensayo. La forma ensayo, de Montaigne a Godard, Universitat de València

Didi-Huberman, Georges (2010), Atlas ¿Cómo llevar el mundo a cuestras?, Madrid, MNCARS



Dumontier, Michael / Lexier, Micah (2019) Call Ampersand Response. Germany: Lars Müller Publishers

Elo, Mika (2018), "Paradoxes of Artistic Research", en Fullaondo y Sixto, Piscina. Investigación y práctica artística, Bilbao: Ed. laSIA, pp. 59-76

Fullaondo, Usoa (2019), 'What can a process do? A passage from ritual to rituality', Journal for Artistic Research, 18 <https://www.researchcatalogue.net/view/352239/352240/0/0>

Massumi, Brian (2015) The politics of affect. Cambridge: Polity Press

Schwab and Borgdorff (2014), The Exposition of Artistic Research: Publishing Art in Academia, Leiden University Press

Sixto, Rita y Fullaondo, Usoa (eds.) (2019), PISCINA. Investigación y práctica artística. Maneras y ejercicios, Bilbao, laSIA- UPV/EHU. (Autores: Fullaondo Zabala, U.; Sixto Cesteros, R.; del Castillo Aira, N.; Elo, Mika; Linaza Vivanco, V.; Moscoso Rosero, M. F.; Pan Vega, D.; Wesseling, J.)

Sixto, Rita (2019), "Pájaros y ornitólogos. Una analogía para pensar la relación entre práctica artística e investigación", Stellae* Revista de Arte, Universidade da Beira Interior LABCOM/ Artes, Portugal.(pendiente de publicación)

Warburg, Aby (2010), Atlas Mnemosyne, Madrid: Akal

Ulrich Olbrist, Hans / Feldmann, Hans Peter (2009) Interview. Köln: Verlag der Buchhandlung Walther König

Ikus lasiawebguneko materialeak atala (<http://www.lasiaweb.com/eu/materialak/>) Praktikan oinarritutako ikerketa artistikoaren inguruko bibliografia

